

Udalak Altamiran, Urola Institutuaren ondoan, dauden baratza ekologikoetako lursailak erabiltzeko itxaron zerrenda osatzea erabaki zuen, bi partzela libre geratu zirela ikusita. Urtarrilean deialdia zabaldu zuen interesatuek izena eman zezaten eta jada behin behineko zerrenda osatuta dago. Guztira 13 eskaera aurkeztu dira eta guztiak onartu dira, denek betetzen dituztelako eskakizunak. Gaurtik hasita, erreklamazioak aurkezteko bost eguneko epea izango da. Ondoren behin betiko zerrenda argitaratuko da eta zerrendaren ordena zozketa bidez egingo da. Denei jakinaraziko zaie zozketa eguna.

[Ikusi hemen behin behineko zerrenda.](#)